

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

120. zenbakia**Data 2001-06-22****11790 orria**

3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

ALDUNDIA - NEKAZARITZA ETA INGURUGIROA

2001eko azaroaren 10eko FORU AGINDUA, 1999ko azaroaren 10eko Foru Aginduaren barruan artikulu berri bat eransten dena, hegoaldeko igelari dagokiona.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

NEKAZARITZA ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUA

*2001eko maiatzaren 28ko FORU AGINDUA, hegoaldeko zuhaitz Igela (**Hyla Meridionalis**) Kudeatzeko Plana eta babesteko arau osagarriak onartzen dituen 1999ko azaroaren 10eko Foru Aginduan atal berria sartzen duena.*

Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuak 1999ko azaroaren 10ean emandako Foru Aginduaren bidez Hegoaldeko Zuhaitz igela (**Hyla meridionalis**) kudeatzeko plana eta babesteko arau osagarriak onartu zituen (1999ko azaroaren 18ko 221 zk. Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala), honako legedian xedatutakoaren aplikazioz: Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legea eta Baso eta Itsasoko Fauna eta Floran Arriskuan dauden Espezieen Katalogoa erregulatzen duen Eusko Jaurlaritzako uztailaren 9ko 167/1994 Dekretua.

Plan horren aurreikuspenen arabera, Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuak, Zuhaitz Igela Kudeatzeko Planean aurreikusitako edo hartatik eratorritako jarduerak garatu eta gauatzeko eskumena duen organoa, egin ditu dagoeneko zenbait putzu berri eta kudeaketa plan hori gauatzeko hainbat eta hainbat gestio eraman ditu aurrera, eta esan dezakegu planaren lehen fasea jadanik bukatuta dagoela, Mendizorrozko hegoaldean espezie hori berriz sartu ahal izateko behar diren putzu guztiak ipini baitira.

1999ko azaroaren 10eko Foru Aginduaren 5. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik eta kudeaketa planaren helburu nagusia Igeldo-Mendizorrotz inguruan hegoaldeko zuhaitz igeltxoaren habitata eta ingurumena babestea eta zaintzea izanik, hau da, ez bakarrik ugaltzeko habitata, baizik eta, urtean zehar espezie horrek okupatzen dituen gainontzeko tokiak ere, eta plana nola gauzatzen ari den ikusita, beharrezkoa ikusi dugu une honetan ipintzea hegoaldeko zuhaitz igeltxoaren Gipuzkoako kudeaketa planean beste neurri batzuk espezie hori ugal dadin toki berriak babesteko.

Hori horrela, foru diputatu honek,

XEDATZEN DU

Artikulu bakarra.

Sartzea Hegoaldeko Zuhaitz igela (**Hyla meridionalis**) kudeatzeko plana eta babesteko arau osagarriak onartzen zituen 1999ko azaroaren 10eko Foru Aginduaren 2. epigrafean atal berri bat honako izenarekin: «Ugalketa toki berriak babesteko neurriak». Atal horrek sistematikoki azaldu behar du «Ingurunean egingo den lana» eta «Beste neurri batzuk» izeneko ataletan, honako edukiarekin:

Ugalketa toki berriak babesteko neurriak:

—Ugalketa toki bakoitza 5 m-ko zabalerako hegal perimetralarekin babestuko da, hori baita ur laminak gehien beteta dagoenean hartzen duen punturik altuena.

—Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuak ugalketa toki berrien sarea jasoz katalogo bat eratuko du eta horko datuak eguneratu

beharko dira ugalketa garaia bukatutakoan (urrian), berriak sartuz eta kanpoan utziz funtzionalak ez direnak edo konpon ezinak diren akatsak dituztenak.

—Katalogotik putzu bat kendu nahi bada, kasu hori aztertu egingo da eta erretiratzea erabakiz gero, beste berdin edo handiago batez ordezkatu behar da, inguruetan bilatuko beharko zaiolarik beste kokapen bat, ahal bada oraingo kokalekutik 100 m baino gehiagora ez dagoen eremu batean.

—Ez da inoiz baimenik emango sarea osatzen duten putzuen %10a baino gehiago urtean erretiratu edo ordezkatzeko.

—Putzu batzuei, bidezkoa ikusten bada, itxiturak ipiniko zaizkie eta baimenik ez duen inori ez zaio utziko sartzen, hori guztia, integralki babestuta edukitzeko edo beharrezkoak diren ikerketa zientifikoak egiteko.

—Babestutako eremuaren inguruko 100 m-ko perimetroan bakarrik ohiko nekazaritza egongo da baimena eskatzetik salbuetsita. Eremu horretan, lurraren erabileraren edozein aldaketa edota edozein eraikin edo eraikuntza egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuaren baimen zehatza eduki behar da, departamentu horrek eska baititzake bidezkoak uste dituen eragin txostenak. Perimetro horretan debekatuta dago peztizidak eta biozidak, oro har, erabiltzea.

—Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuak gai horietan eskumena duten beste administrazioei hartutako neurrien eta hartu beharreko neurrien berri eman beharko die. Udalek kontuan izan beharko dute beren plangintzetan ugalketa toki babestu horiek hor daudela; horrela beraz, komenigarria izango da planifikazioan koordinazioarekin eta adostasunarekin jokatzeta.

—Populaziogune iraunkorrek hasten direnean eta horren ondorioz, sarearen zati bat, gutxienez, finkatuta dagoenean, beti ere eskumena duen administrazioarekin bat etorriz, aztertuko da Eremu Babestuen Katalogoan sartu ala ez, Legean jasotzen den legezko figuraren baten bidez, edo berriren bat sortuko balitz, baldintza horietara gehien egokituko litzatekeen baten bidez.

Azken xedapenak.

Bakarra. Foru Agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo biharamunetik aurrera sartuko da indarrean.

Donostia, 2001eko ekainaren 11a.—Jon Mikel Murua Uribe-Etxeberria, Foru Diputatua.

(6543) (6727)